

SANTA JENOBEBA ETA DONE RIKTRUDIS AURREZ AURRE. HERRI-KONTAGINTZA DELA ETA

Donostia, 1991-III-25

Ana M. Toledo

Euskal kontaktak ahoz-ahozko igorpena zuten haiei testua igorpen-bide zutenak gehitzen dizkienean zenbaitetan ez zuen aurkitu hartzailearengan babes handirik, baina bada bestelakorik ere: Txomin Agirrerren *Auñemendiko Loreak* eta Gregorio Arruek itzulitako *Santa Genovevaren vicitzak* (1) ilustra dezakete egindako baiezipena.

Aipatu adibideek, lehenik eta behin, agerian uzten dutena zera da, euskarri berbera duten bi komunikaziok erantzun-modu oso desberdina jaso dezaketela hartzailegoarengandik. Zinez, planteamendu orokor baten barnean, ez gaude gertaera bitxiaren aurrean, mundu idatzia horrelako jazoeretzat beterik bait dago. Hala ere, bi kontaketa hauek argia ikusten duten uneari lotzen zaion ezaugarri batek, euskal kontaketa mundu idatzira jaiotzen deneko garaia izateak, gogoetari heltzeko adinako akuilua eskain dezake.

Testuak eta testuak daudenez, hauei buruz orokorki hitz egitean ñabardura asko galtzen da, baina abiapuntu legez bederen, idazketak ahoz-ahozko munduak ez bezalako harremanak eraikitzen dituela onar daiteke. Harreman desberdin hauen ezarketan komunikazio-prozesuko parte-hartzaile guztiek eragin dezakete: idazleak, testuak eta beronek darabilen gaiak, gaia erabiltzeko moduak, baita hartzaileak ere.

Idazleak, idazketa-irakurketen egintza menderatzen duen une bere-tik, bide horietan zehar eraiki den kulturatik jasotako erreferentzia ugari ekar dezake, kultura horrek landutako gaiak eta kultura horri egokitzen zaizkion antolamendu-moduak, mundu horretan bizi den hartzailearen-tzat gogokoak izan daitezkeenak.

(1) Lehen argitalpenaren izenburua. Aurrerantzean jasoko diren aipamenetarako argitalpen eskuragarriago batera joko da, Aita Lino Akesolok, lehen argitalpen hau berau oinarri, prestaturikora, hain zuzen ere. Ik. AKESOLO, LINO (Ed.), *Gregorio Arrue: Santa Jenobebaren Bizitza*, Euskal Klasikoak Saila, 8, Erein, Donostia, 1987.

Igorpen-bidearen aldaketa eragin handia izan dezakeen faktorea da: urrutirago joan gabe, testuak, idazketaren gain eraikiak, ahoz-ahozko komunikazioan ez bezalako gogoeta-prozesua zilegiztatu du, esandakoa entzun ahala jaso eta ulertu beharraren morrontzatik askatuz, baita ezagueraren gordailu legez ziurtasun osoa eskaintzen ez duen memoria-aren menpekotasunetik libratuz ere.

Idazketa-irakurketen egintzaren ezagutzatik mende askotara, inprimategiak lanean hasi eta zenbait gizalditara, idazlearen jeinu sortzailea azpimarkatuko du Erromantizismoak: orijinaltasunaren bilaketa etengabea da, bere eredia, Jainkoak bezala, ezerezetik sortzen duen poeta da. Ideiak, oraindik, besterenak izan zitezkeen baina mintzaira jeinu sortzaile horrena bakarrik. Azken batez, idazleari berea bakarrik den mundua sortzea eskatzen dio eta berea bakarrik den mintzaira. Estetikari buruzko ikuspegi honek idazketa ezinbesteko igorpen bide du, idatziz bakarrik gauza bait daiteke era horretako mundua.

Testuinguru honetan, mugimendu erromantikoaren hatsak bultzaturik, hasiko dira argitaratzen lehen euskal kontaketa idatziak. Aipagai ditugun biak, bata eleberri historikoa eta bestea elezaharra, kontaketa-aren alorrean Erromantizismoak gogokoenak izan zituen haiek dira.

Kontaktetaren eremua, ahoz-ahozko igorpenak beste inorekin banatzen ez zuen esparrua, irakurketa eskatzen duten haiekin banatzen hasten denean, kontaketa-erikiko ohizkoa ez zen harremana eratzeke bidea jartzen ari zen. Eskakizun berriak dakartzaten testu hauen aurrean, ez zatekeen erantzunik harrigarriena jaramon handiegirik ez egitea harik eta ohiturak aldatzen joan arte. Horregatik, lehen itxura batean behintzat, deigarria ez litzateke izango hainbeste babesik ez eskaintzea nola arrakastaz izatea.

Aurreko mendearen bigarren erdian, Gregorio Arruek Schmid idazle alemaniarra jarraikiz, Santa Jenobebaren bizitza itzultzen du, aurreko mendean eta mende honen hasieran euskal liburutik irakurrietakoa izango dena. Kontaketa doi-doi kaleratu denean eta bere bizitza literarioa testimoniala izatetik igarotzen ez denean laupabost (2) argitalpen

(2) J. Bilbaok emaniko erreferentzi bibliografikoen arabera lau argitalpen, hiru *Santa Genovearen vicitza...* izenburupean, 1868, 1882 eta 1889 urteetan Pedro Gurruchagaren etxean, Tolosan, argitaratuak, laugarrena, berriz, *Bravanteco Genovearen bicitz arrigarri miragarria* izenburupean 1885. urtean E. Lopezen etxean, Tolosan bertan. Ik. BILBAO, JON, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Eusko Bibliographia*, I, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1970, ARRUE REZOLA sarrera, 325. or. Baina, M. Lekuonak 1868. urteko argitalpenaren beste berrargitalpen bat 1892.ean lekutzen du. Ik. LEKUONA, MANUEL DE (Ed.), *Genoveva de Brabante por el "bertsolari" Juan Cruz de Zapirain*, Trabajos del Laboratorio de Eusko Folklore, argitalpen-leku eta argitalpen-urterik gabe, III. or. Argitalpen-urteetan inprenta-hutsik ez badago, bost argitalpenetara heldu zen aurreko mendean.

bereganatu zituen Arruek eginiko itzulpenak. Datu honek, besterik gabe, testua euskarri zuen kontaketa euskaldunak ez zuela arbuaiatu aditzera ematen du, alegia, ez ziola muzin egin beste igorpen-modu bat zekarren historiari. Itzulpen honi egiten zaion abegi ezin hobeak eta honek bezala kontaketa adierazpide hartu zuten beste testu batzuei ukatzen zaien babesak erakusten duen kontrastea galde-zeinu bihurtu eta ondoko lerrootan erantzun-modu desberdin hori eragin zezaketen faktoreak hartuko ditugu mintzagai, ez arrazoi horiek eta horiek bakarrik eragile izan zireneko ustean, baina bai izan zitezkeelakoan. Bestela esanda, itaunaren erantzunari koherentea izatea eskatzen diogu, ez besterik.

Azaldutako helburua betetzeko bide egokitzat jo dugu alderaketarena, eta, zehazki, euskal lehen eleberrizat jo den Txomin Agirrerren *Auñemendiko Lorearekin* erkatzea. Bi kontaketa, bigarren hau bestea baino hogeit eta hamar urte beranduago argitaratu zena eta haren bizitza literario distiratsua izan ez zuena.

Bizitza literarioz elkarrengandik hain urrun lekutu ziren bi testuok, badute alderaketa zilegiztatzeko adinako antzekotasun eta funtzionamendumen desberdina azaltzeko beste alde. Santa Jenobebaren bizitza itzulpen gisa testuratu bazen ere eta *Auñemendiko Loreako* done Riktrudisena, berriz, morrontza hori gabe, itzulpena izateak ez du eragotziko hemen planteatuko den erkaketa; izan ere, erkaketa ez da bideratuko idazlearen sorkuntza-maila neurtzera, nola bi testu hauetara eraman zituzten lehen-gaien jatorria eta lehengai hauek esaldiaz harantza eratzeko modua aurrez aurre jartzera.

Hagiografia herri-literaturaren esparru izan da. Hona dakartzagun bi kontaketatiko protagonistak santu izaeraz jabeturik aurkezten zaizkigu lehen argitalpenean. Gerora, Arruek Brabanteko Jenobebaren santu izaera zalantzazkotzat jo zuelako edo, ezaugarri horretaz desjabetu egin zuen izenburua. Baina, elezahar edo kontaketa hagiografiko, birtute handidun eta eramankizun handiagodun emakumea ematen zaigu erakustera. Geldi bedi errealitate historikoa bere egiarekin eta fikzioak eraikitzen duen mundu autonomoari eta bere legeei so, beren banakotasun paregabea bide gehiengoan mundu arrunta utzi eta, ez-beharrak ez-behar, birtutean sendo bizi izan ziren bi pertsonaien berbaldi-mailako historia alderatzea zilegi izan bedi.

Dena den, berbaldi-mailara heldu aurretik hasten dira bereizten. Testu-aurrea (3) bera urrunketa sorleku da; izan ere, lehengai bila abiatu zirenean toki desberdinetan aurkitu zuten harrobia *Santa Jenobebaren Bizitzak* eta *Auñemendiko Loreak*.

(3) "El conjunto de los materiales que preceden a la redacción definitiva ha sido llamada por algunos investigadores el ante-texto". SEGRE, CESARE, *Principios de análisis del texto literario*, Editorial Crítica, Barcelona, 1985, 87. or.

Erredakzioaren historiaren azterketa xehea alboratuz, batak eta besteak erabili zituzten lehengaien jatorriaren hausnarketa xumeak agerian uzten du langaien iturrien artean dagoen aldea. Arruek euskaratu zuen idazlanaren sorburua ahoz-aho igorri zen kontaketa batean zegoen, gerora, denboraren joanean, abiapuntu hau zuen historiak mundu idatzian hezurmamtze zenbait izan zituen, jatorrizko aldaeraren bat inspirazio-iturri hartuz edo beranduagoko egile ezagunen baten testuan oinarrituz, nola aukera hauek konbinatuz. Kristobal Schmid alemaniarren eskutik datorren kontaketa aurretik oso gai ezaguna zen Europa osoan (4). Arrueren itzulpenak data eta jatorri zehatza badu ere, ezin ahantz daiteke Schmidek bere bertsioa plazaratu baino lehen zenbaterainoko zabalpena izana zuen Brabanteko Jenobebaren bizitzak.

Arrueri, itzultzaile den neurrian, hala fabula nola fabula antolatze modua emanak datozkio. Badago alderik Schmidek bere gain hartzen duen eginkizunaren eta Arruerenaren artean, baina lehenak ere, maila apalagoan bada ere, askatasunaren hegalki moztuta dauzka, baldintza batzuk barnean behintzat. Nahiz eta abiaburutik bertatik onartu idazle orok idazlana sortzeko duen "testu-aurrea" lantegi horri heltzen dion unerarte gizakia osatzen joan den mintzairaren eta kulturaren hiztegia dela (5), Schmidek herri-kontsumorako izango den kontaketa eratu nahi duen neurrian, gehiengoei zuzentzea erabakitzen duen heinean, idazle landu deiturikoen baino askoz nabarmenago murriztu beharko du arestian aipatzen zen hiztegia: herritik hartu du gaia —Jenobebaren bizitza

(4) A. Lino Akesolok zenbait xehetasun eskaintzen du: "Azkeneko azterketek diotenez, Jenobeba onen bizitzak Frantzialdeko beste aoz aozko ipui zarrago batean omen du jatorria, *Frantziako Erregina eta Mariskal ezkontzauslea* izeneko ipuiari, alegia. Oso antziñakoa omen da ipui au. Or oiñarriturik, amairu-amalagarren mendean fraide asmatzaille batek egin zuen aldaketa: Erreginaren izenaren orde kondesa zelako Jenobebarena jarri (benetako Santa Jenobeba Parisek zaindari duenaren omenez, antza), senartzat Sijifredo konde ustezkoa eman berari, beste eraskin batzuk asmatu (Jenobeba eta bere semetxo sei zazpi urtez janaritu zuen basaintzarena eta abar)... Gaiñerakoa geroko idazleek egingo zuten. Idazleotako bat René de Cerisiers jesuita frantzesia izango da, 1638n Santa Jenobeba zelakoaren bizitza atera zuena. Arrezkero, jesuita orren liburuaren eragitez, sekulako arrera izango du ipuiak Europa guztian. Batez ere Alemanian. Alemanen literaturan bertan ere ildo sakona utziko du XVIII-XIX garren mendetan zear". AKESOLO, LINO (Ed.), *Gregorio Arrue: Santa Jenobebaren Bizitza*, 21-22. orr. Laffont-Bompianik honela aurkezten dute: "Personnage légendaire dont les aventures, après avoir fait l'objet de récits populaires dont certains remonteraient au VIII s., furent évoquées dans *la Légende dorée* (vers 1250) de Jacques de Voragine, puis plus longuement, dans un texte dû à un moine allemand du XV s., Matthias Emich, et inspirèrent à partir du XVIII s. de nombreuses oeuvres littéraires et musicales". LAFFONT-BOMPIANI, *Dictionnaire des personnages*, Ed. Robert Laffont, Paris, 1984, 413. or.

(5) R. Selden-ek honela jasotzen ditu Roland Barthes-en hitzak: "que los escritores sólo tienen el poder de mezclar textos ya existentes, de volverlos a juntar y a desplegar, y que los escritores no pueden usar sus textos para 'expresarse', sino sólo inspirarse en ese inmenso diccionario del lenguaje y la cultura que 'ya está escrito'". SELDEN, RAMAN, *La teoría literaria contemporánea*, Editorial Ariel, Barcelona, 1987, 67. or.

ezaguna zen aldaera desberdinekin— eta baldin eta herriari itzuli nahi badio honek ezagutzeko, “errekonoiztzeko” (6) eran itzuli beharko dio; ezin eman diezaioke guztiz berria den Jenobebaren irudia. Baldintza hauetan ez du askatasunik edozein motatako nahasketak eragiteko berak jaso duen mintzairaren eta kulturaren hiztegiaren; alegia, ez du askatasunik jaso duen Jenobebaren historia, beste tradizio batzuekin edo tradizioaren iraulketa dakarten elementuekin nahasteko. Izan ere, herritik jaso duen Brabanteko Jenobeba beste elementu batzuen bidez bortizki nahasten badu, herriak ezagutzen ez duen Jenobeba itzuliko dio, eta ezagutzen ez duen neurrian, herriarena ez da izango, Schmidena baizik. Edo eta jasotzen duen ondarea, sortu duen harena (herria) dena, honek ondare horretaz egina duen ohizko irudiaren barnean atzera ematen dio, edo eta, birsorketa bitarteko, ondare horren ikuskera berezia, Schmidek eta berak bakarrik elementu desberdinak konbinatuz asmatu duena itzultzen badio, ez da herri-kontsumorako gai izango. Schmidek, tradizioetik langaitzat hartu duen Jenobeba, lantze-prozesuak eragin dezakeen itxuraldake-ta bide, beste Jenobeba baten irudi bihurtzen badu, langaiaren emaila ziren haiek ez dira identifikatuko itxuraldatutako Jenobeba honekin eta ez dute bere egingo. Aldaketak eragin ditzake, baina sistema baten barnean, sistema horrek jarritako hesiak hautsi gabe. “Collage” partikularra, berezia, bitxia, pribatua, erabat banakoa dena debekuen zerrendan dago; hau da, Schmideren muga Jenobebaren bizitzaren ikuskera berezian, inoiz eman gabekoan dago. Schmidek, bere aurretik gai honi lotu zitzaizkion beste idazle batzuk bezala, hainbat osagai gorde egin zuen, ezagutu zitekeen Jenobeba kaleratuz. Tradizioak emaniko Jenobebaren irudiari lotu zitzaion: errugabe izanik adulterio-salaketa jasaten duena, heriotz zigorra jaso eta saihestu ondoren, basahuntzak emandako esne eta beroari esker basoan semea hazten doala senarrak aurkitu, ezagutu, barkamena eskatu eta ohore guztiarekin berriro gazteluratzen duena. Honela bada, itzultzaile soila den neurrian, Arrueren mugak handiagoak badira ere, hesi batzuen barnean atondu zuela Schmidek begi bistakoa da.

Euskal Herrian Arrueren itzulpena 1868.ean argitaratzen da eta, honen bestez, data zehatzari lot dakioko kontaketa honek mundu idatzian duen zabalpena. Baina, dirudenez, gauzatze konkretu hori heldu orduko “ehunka aldiz esana eta entzuna” (7) zegoen. Esaten eta entzuten hasten deneko une hori ezagutzen ez bada ere, zera gehi daiteke, gai honen

(6) Errusiar Formalistek zerabilten zentzuan. Ik. SHKLOVSKI, VICTOR, “El arte como artificio” in TODOROV, TZVETAN (Ed.), *Teoría de la literatura de los formalistas rusos*, Siglo Veintiuno editores, México, 1980, 4. argitalpena.

(7) K. Mitxelenak jende arruntaren eskea piztu duten irakurgaiak mintzagai dituela, Brabanteko Jenobebaren bizitza horien artean, dioenez “Hauek, ordea, ehunka aldiz esanak eta entzunak ziren dagoeneko eta soinua lagun bizi zirenak ere iraunkor agertu dira behin eta berriz”. MITXELENA, KOLDO, “Liburu sorta zaharberritu baten atarian” in AKESOLO, LINO (Ed.), *Gregorio Arrue: Santa Jenobebaren Bizitza*, 11. or.

zirkloarekin bat datozen kontaketak zabalpen handia izatera heldu zirela gure artean (8).

Beraz, Santa Jenobebaren bizitza kontaktzen duen historiaren jatorria ahoz-ahozko igorpenean dago, hor ditu bere sustraiak eta erro horietan edanez, zenbait idazleren eskutik, mundu idatzira eramanda hainbat aldiz, berriro bizitzara ekarriz aldaera desberdinetan. Arruek aldaera horietako bat hautatu zuenean itzultzeko ahoz-aho zebilen historiari historia finkatu bat gehitu zion, idazkerak ematen duen finkotasuna zeramana.

Santa Jenobebaren Bizitzak mundu ezaguna zekarren, mundu miresgarria, handiki baten neke, pena eta pozak harrigarriki bizi izanak: heriotz zigorraren barkamena, mortua, basahuntz-laguntzailearen agerrera, heriotzaren atarian anagnorisia, ekintzen garapenean aldaketa ekarriko duena, Jenobebak zeraman higadura-prozesua irauli eta bizitza-baldintzen hobekuntza-prozesuari hasiera emango diona. Giza-itxura ere galtzear zeukan Jenobeba harengan Sijifredo kondeak bere emaztea ezagutu ondoan hasten duen hobekuntza-prozesuak kondesaren estatutua itzuliko dio eta bere bizileku den gaztelua peregrinazio-toki bihurtuko. Ez da zaila laburpen honetan V. Propp-ek, ipuin miresgarrien morfologia aztergai (9), deskribatu zituen zenbait funtzio atzematea, hala nola heroiaren laguntzailearen agerrera edo erabat itxuraldaturik dagoen heroia ezagutzea. Hamaika kontaketa bitarteko herri-tradizioan sustrai sendo eta sakonak botata dituzten elementu miresgarriek, gertaeren garapenean sartutako ez-usteko iraultetek, klimax-antiklimax egoeren arteko joko azkar eta azken muturreraino eramandakoek... jatorri jakina ematen diote *Santa Jenobebaren Bizitzari*.

Besterik da *Auñemendiko Lorearen* testu-aurrea. Eleberriari hasiera ematen dion lehen lerroan bertan esaten zaigunez "gertaera zarrak" dakartza eta gertaera zahar hauetaz jabetzeko erabilitako iturriak ez dira ezkutatuko. Agirrek zenbait liburutara jo du gertaera horien berri izateko eta, oin-oharrak bide, kontsultagai izandako bibliografia azalduko du (10).

(8) "No sabemos en qué fecha se introdujo en la literatura oral vasca la bella leyenda alemana de Genoveva de Bravante" dio M. Lekuonak. Eta eranstun du: "Son muy populares en nuestros caseríos cuentos cuyo ciclo temático corresponde perfectamente al de la referida leyenda". LEKUONA, MANUEL (Ed.), *Genoveva de Brabante por el "bertsolari" Juan Cruz de Zapiain*, III. or. Gaiaren zirkloarekin bat datozen kontaketak ejemplifikatzerakoan J. M. Barandiaranek 1904. urtean Ataunen jasotako bat aipatzen du, "Andre doakabea". BARANDIARAN, JOSÉ MIGUEL, *Obras Completas. Eusko Folklore*, II, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1973, 271-273. orr. Mende honen hasieran jaso izanagatik, bertan azaltzen diren osagai harrigarriek behintzat, Brabanteko Jenobebaren bizitzakoak baino harrigarriagoak, hau argitaratu baino lehenago esan eta entzungo zela iradokitzen dute.

(9) PROPP, VLADIMIR, *Morfología del cuento*, Editorial Fundamentos, Madrid, 1977, 3. argitalpena.

(10) Agirrek Historia du inspirazio-iturri eta jakintzaren alor honek eskaintako bibliografiaz egin duen erabilera azaltzen du; P. HARISTOY, *Recherches historiques sur le Pays*

Histori liburuetan ikasi duen hura hartzen du abiapuntu, irakurri duen hura, eta, gainera, bere idazlana taxutzeko erabiliko ez duen bi hizkuntzetan irakurri ditu dakartzan berriak.

Santa Jenobebaren Bizitza eta Auñemendiko Lorea testu-aurrean bertan hasten dira bereizten: ahoz-ahozko mundua/mundu idatzia aurkakotasuna dago jatorrian. Bata herrian entzundako historia oinarri eratu da, bestea liburuetan ikasitakoa abiapuntu zuela. Lehenak askoren ondarea du abiapuntu, bigarrenak gutxiengoena. Dena den, ondare horretaz idazleak egiten duen erabilerak erabakiko du itzulbidea. Erabilera hori izango da, hain zuzen ere, langaiek abiapuntu dituzten talde soziologiko berdinak dituzten helmuga ala, lantze-prozesua bide, harremana aldatzera doan ebatziko duena. Azken batez, lantze-prozesu horretan eraikitzen doan irakurle inplizitua izango da errealitate soziologikoan hartzaile-modu bat aukeratzen joango dena.

Dokumentazio historikoa erabili du Agirrek gertaera eta pertsonaia historiko batzu testuratzeko, ahoz-aho zebilen historia edo honen gain eraikitako testutan oinarritutakoa dakar Arruek. Kontaketan hasiera bera lekuko, lehenak 638. urtetik aurrera igarotako gertaerak dakartza, bigarrenak “Fede egiazkoaren argi ederra zabaltzen Alemanian abiatu zanetik laster” (35. or.) igarotakoak. Ez da lehen lerroetara soilik mugatzen den jarrera. Beste zenbait gertaera ere data zehatzari atxekirik emango ditu *Auñemendiko Loreak*: Adalbaldo 652. urteko otsailaren bian hil zuten, Riktrudisi 687. urtean heldu zitzaion heriotza. Denboraren ardatza hone-la zedarritzeak kontaketaen historizitatea bermatzen du. Ez dago hain mugarri finkorik *Santa Jenobebaren Bizitza*n. Bi kontaketek birtute handidun emakumeak dituzte protagonista, baina testu-aurreak eta berari ordaintzen zaion maileguak —data historikoak gorde, erreferentzi bibliografikoak azaldu...— modu desberdinez kualifikatzeko oinarriak jartzen ditu, bata kontaketa historikoa, bestea, kontaketa hagiografikoa edo elezaharra.

Dena den, kontaketa historikoa izateak historiarekiko zor batzuk sortzen badizkio ere, zor horiek ez diote eragozten historia fikzioarekin nahasiz, datuen mundutik hegalak altxa eta bere baitan izateko arrazoia duen tramankulua eratzea. Datu historikoari gorde beharreko leialtasuna fikzioaren egiaren menpe jartzen da eta ez aldrebes. Honenbestez, Agirren askatasuna Brabanteko Jenobebaren bizitza taxutu duten haiena baino handiagoa da. Hauek ezin zezaketen irauli ahoz-aho jasotako kontaketa baldin eta lehengaien emaile ziren haiek idazlearen irudimenak berregin edo birsortu duen historia ezagutzea nahi bazuten; Agirrek bere datu historikoak irauli ditzake eta, egia historiko nimiñoena gordeaz,

Basque, Bayonne-Paris, 1884; M. J. M. MENJOLET, *Sain Amand apote des basques*, Auch, 1869; D. ESTANISLAO JAIME DE LABAYRU Y GOICOECHEA, *Historia General del Señorío de Bizcaya*, Bilbao, 1895.

beste elementu ugarirekin konbinatuz, historia berri bat asmatu. Agirrek bere hiztegi eta kultura osatzen duten elementu desberdinak nahasiz sortu duen historia da eta inork ez dio galdetuko altxor horretaz egin duen erabileraz: inork ez dio eskatuko datu historiko horiek ezagutzeko moduan egotea, inor ez da hurbilduko Historiaren alorrean bere burua jaztera. Langaiei emaielen aurrean ez du erantzunkizunik hartzen. *Santa Jenobebaren Bizitzaren* egileak herriarengandik kontaketa jasotzean, bazuen epailerik, bazuen kontaketa horretaz egindako erabileraz itaun zezakeenik eta erabilera horren arabera bere egin ala arbuia zezakeenik. Historiagi-leak ez dira *Auñemendiko Lorearen* epaile; izan ere, datu historikoa fikzioaren errainura igaro da.

Testu-aurrearen jatorri desberdin hau dela eta hasten dira bereizten, batak mundu herritarrean ditu sustraiak, besteak gutxiengoaren ondare den Historian, batak entzunaz eta esanaz funtzionatzen duen munduan, besteak irakurriz eta idatziz funtzionatzen duenean.

Agirrek liburuetara jo zuen gertaera historiko eta pertsonaia historiko-koiei buruzko berriak jasotzera. Lehengai historikoari maitasunaren esparruko kinka gehitzen dio. Jazoeren urtealdia mugatuz, historia gatazka historikoa planteatzeko bitarteko da eta koordenada hauen barnean garrantuko da maitasun-gatazka. Bi gatazken arteko lotura hamaika modutan burutu zitekeen, folletoiarentzat (11), kontaketa herritarrarentzat, nahiz hain herritarra ez zenarentzat, bideak irekita zeuden, harik eta egileak osagai horien antolamendua *Auñemendiko Lorean* gauzatzen duen arte. Berez *Auñemendiko Lorea* eramandako lehengai atera zekiekeen beste era bateko etekinik. Gatazka historikoan kokatutako maitasun-gatazkaren abiapuntuak aberria maitasun baten hezurmamitzerako hesi bihurtzen zuen, menditar bat, itxaropen guztiak galduta gero, handiki batekin ezkontzea, gerra eta heriotza oreka bilaketarako bide... Bazegoen aski gertaera bihozbera, hunkigarri, gogor eta indartsu produktu zirrargarria taxutzeko. *Santa Jenobebaren Bizitzak* zirrara sortu zuen, *Auñemendiko Loreak* ez. Osagaiak bietan ziren zirrargarriak. Mundu landuan jasotako lehengaiak eta hauei erantsitakoa testuratzeko moduak urrutiratzen dute mundu herritarretik eta hala erakutsi zuen bere bizitza literarioak: *Auñemendiko Lorea* ez zen hauengana heldu.

Azken batez, testu-aurretik testu-ondora bereziko dira bi kontaketak. Kausa-efektuen harreman mekanikoaren atzaparretan erortzea saihestuz, honako baiezipen hau erantsiko genuke: testu-ondoak testu-aurrearen isla baitiltzan jokatzeko duela. *Santa Jenobebaren Bizitzak* ahoz-ahozko kontaketa zuen jatorrian. Arruek itzultzen duenean eta honela aldaera finkoa ezartzen dionean ahoz-ahozko mundutik erdi-ahozkora igarotzen da: ahots goraz irakurle batek aldarrikatzen duela jasotzen du entzuleak. Behin edo

(11) Ez igorpen-modu bezala ulertua, baizik eta genero edo testu-tipo moduan.

behin behintzat izan zen norbait testua euskarri zuen historia hori entzun eta berriro bizitzara ekarri zuena beste testu bat bide. Juan Kruz Zapirain bertsolariak Arrueren itzulpena entzun egin zuen, bertsoa adierazpen-forma bihurtu eta historiaren beste aldaera bat plazaratu zuen kantatua izan zedin (12). Testua ahoz-ahozko mundura igarotzeko tramankulu berri bihurtzen da; kontaketa gizaki ororen ondare balitz bezala behin eta berriz aldaera desberdinak eskaintzeko langai izatera heltzen da (13). *Auñemendiko Lorea* komunikazio-ekintzaren ibilera ahozko munduarekin nahasi gabe egiten da eta ez zen erne, ezta ere, berarengandik horrelako kimurik.

Lehengaiekin hasten diren aldeak komunikazio-ekintzaren garapean jarraipena aurkitzen dute: testuak modu desberdinean eratzen dira, igorpen eta jasotze-modu desberdina dute eta, azkenean, bizimodu literario desberdina izan zuten.

Historia testura eramatean, historia hitz-orez jaztean egindako auke-
ra bereizketa-iturri da. Hala ere, testu-taxuketaren alderdi bereizlea ez da heltzen jokabide amankomun batzuk estaltzera.

Brabanteko Jenobebaren bizitzaren berrargitalpena dela eta, 1960. urtekoa hain zuzen ere, K. Mitxelenak iruzkin bat egiten dio. Honela hasten da:

“Liburu onek, irakurle, Proust, Joyce, edo Faulkner’en bideetatik urruti xamar eramango zaitu. Eztizu buruausterik emango eta etzaitu pekatu-malda limurietan beera amilduko.

Den bezalakoa da, ori bai, eta eztu arpegirik izkutatzen. Birtuterik birtutetsuena erakusten dute onek eta gaizto bakar bat besterik ezta agertzen liburu osoan, nai-ta-ezkoa delako gaiñera, onen ontasunak argiago distia dezan. Eugène Sue edo Xavier de Montepin’en munduan gaude; sugeak Paradisua pozoitu baiño leen ordea” (14).

Bete-betean onar daitezke Mitxelenaren hitzak, ez bakarrik Brabanteko Jenobebaren bizitzarentzat, baita *Auñemendiko Lorea*rentzat ere.

Protagonistaren izena, erreferentziala batean eta metaforikoa bestean, kontaketa izenburura eramatekin hasten diren antzekotasunak,

(12) “En el caserío de nuestros buenos Juan Cruz y Micaela existía la costumbre de leer vidas de santos durante las veladas de invierno (...).

Reunida toda la familia alrededor de la lumbre, la etxeokandre lee un capítulo del **Brabante-co Genovevaren bizitz arrigarri miragarria**”. LEKUONA, MANUEL (Ed.), *Genoveva de Brabante por el “bertsolari” Juan Cruz de Zapirain*, III. or.

(13) Bada argumentu-mailako alderik Schmiden kontaketa eta Juan Kruz Zapirainek bertsoz eskaini zuenaren artean. Ik. LEKUONA, MANUEL (Ed.), *Op. cit.*, III. or. Zapirainek ez-ezik, Juan M.^a Zubizarreta azkoitiar bertsolariak ere eman zuen argitara Santa Jenobebaren beste bizitza bat bertsoan.

(14) Ik. *Egan*, 1960, 230-231. orr.

zenbait deskripzio-mailatara heda daitezke: argumentua, gaia, joskera... Kanpo-itxuratik barne-itxurara, historia ataletan banatuz eta banaketa honen bidez erritmo-modu bat sortuz hasten den eraketatik, historien barne-joskerara kidetasun ugari soma daiteke.

Kapitulua hartzen dute kontaketa antolatzeko neurri eta honen izenburua bertan garatuko den fabula-atalaren laburpen (15).

Koordenada narratiboez egiten den erabilera oso antzerakoa da bietan; izan ere, singularitu gabe, banakotu gabe, oso modu orokorrean adierazten dira: gertaerak leku-denboren ardatzean kokatzerakoan zehazgabetasuna nagusitzen da, gizabanako moduan jokatzen ez duten pertsonaiak dituzte egile edo jasale... Azken batez, nahiz *Santa Jenobebaren Bizitzan*, nahiz *Auñemendiko Lorean* kontaketa-joskeran eta esanahi-mundua eraikitzerakoan kidetasuna nabarmena da. Prozesuak ezabatzen dituen joskeraz eratzen dira: protagonistek ez dute hobetu beharrik eta, pertsonaiaren batek hobetu beharra badu, ez da barne-prozesua bitarteko izango baizik eta batpatean. Azterketa aktantzial batean funtzio berbera beteaz deskribatu ahal izango lirateke protagonistak: Jenobebak eta Riktrudisek subjeto grifñatsu batek desiratutako objektuaren funtzioa betetzen dute.

Protagonista nahiz bigarren mailako izan, pertsonaia lau moduan itxuratzen dira, kontaketa hasieratik bertatik eginak dauden izaki gisa. Birtute edo bizio batzuen jabe, birtute edo bizio horietan mantentzeko toki bihurtuko dute berbaldia eta ez eginaz joateko lekugune; ez dago bizitza propio, banako, berezia bizi izateko aukerarik: pertsonaia nortasun zehatz batez jabeturik dator kontaketa, nortasun zehatza ezartzen zaio kontaketa hasieran eta aurrerantzean, gerta ahalak gerta, tinko eutsiko dio. Nortasuna ezaugarri gutxitara murrizten da eta hain orokorretara non pertsonaia bizio edo birtute batzuen ordezkari bihurtzen den eta lekugune testuala horien erakustoki; izan ere, birtutedun edo biziodun legez jokatzea mugatuko da, dikotomia eraikiz helburu didaktiko garde-nago baten euskarri egituratzailea. Mutur batean edo bestean kokatzen diren pertsonaiak datoz, bi muturren arteko tartea hutsik utziz.

Argumentua erraza eta tolesgabea da. "Errugabe salatua" du gaitzat. Riktrudis eta Jenobeba ez dira erasotzaileak, beraiek eraso dituzten erantzun gisa, baina halakotzat joko dituzte. Gizaki gaizto baten biktima, gizaki gaizto horren nahiei entzungor egitea da salaketaren arrazoia. Anekdot-mailan Portunek eta Golok irudikatuko dute gizaki gaizto hori, izen berezi horiek ordezkatu eta ejenplifikatu dute gaiztakeria.

(15) Xehetasunetan sartuz gero soma daiteke alderik bi kontaketen izenburutan. *Santa Jenobebaren Bizitzakoak Auñemendiko Loreakoak* baino luzeagoak eta zehatzagoak dira. Luzera eta zehaztasun hori bide, kapitulua garatzera doan kontaketa-atalak fabula-mailan dakarren aurrerapena esanda gelditzen da, ez horrela bestean, izenburua orokorra goa izanik ez da heltzen hainbeste konkretatzera.

Kualitate baten konkrezio besterik ez dira. Gaiztakeria subjeto konkretu batzuegan ez-ezik, ekintza konkretu batean gauzatuko da: porrot pertsonala eragin duen pertsonaiaren salaketa, porrot hori sortu duen arrazoia ezkutatu.

Riktrudisek eta Jenobebak ezezkoarekin erantzungo diete, Portunen ezkontz proposamenari eta Goloren adulterio-eskaerari. Ez dago besterik. Ezezko hauek estaliko dituzte erasotzaileek, beste jazkera batez jantzi eta indar bila hasiko dira mendeku-gosea asetzeko. Errugabe salatuko dituzte, baina errudun aurkeztuz zigorra ezartzeko indarra eta ahalmena duten haien aurrean. Portunek gerran dakusa eraso-bidea. Erasorako dituen arrazoi pertsonalak ezkutatu, bere mendeku-nahia añaemenditar ororen arrazoi bihurtu, eta eraso-indarra lortuko du. Golok Jenobebaren senarrarengan dakusa eraso-bidea eta honen aurrean salatuko du, bere adulterio-proposamena haren adulterio-eskaera bezala aurkeztuz. Errugabeari bere gogora, bere uste, nahi etab.en arabera bizitzeko eskubidea ebatsi ondoan zorigaitzean bizitzera behartzen dute. Batean, añaemenditar izaeraz desjabetzea, gerrak dakartzan artegatasun-negarrak eta heriotza dira zorigaitzaren iturriak. Bata bestearen ondotik datozen zigor moduan adierazita, mailaz-maila zorigaitza gehituz eta handituz doaz, harik eta Portunek bere maite Riktrudis lapurtu zuen gizona hiltzen duen arte, harik eta zigorra klimaxera heltzen den arte. Bestean, ziega, heriotz zigorra, eta mortuko bizitza bihurtuko dira zorigaitz-sortzaile. Azkenean birtuteak bizioa gaudituko du eta Ongia garaile oso aterako da: Riktrudisi Añaemendiko atea irekiko dizkiote eta Jenobebari gaztelukoak.

Leku-denborazko koordenada jakin batzutan garatutako jazoera hauek, kontaktaren denboratik at kokatzen den inimizazio-errituen oihartzuna dakarte. Riktrudis eta Jenobeba berezi egiten dituzte beren etxeetatik, añaemenditarrari Añaemendirako bidea itxiko diote, brabantearra, heriotz zigorra gainean duela, bere bizileku zen gaztelutik aterako dute. Eguneroko bizitza utzi eta abenturaren errainuan sartzeko ordua da, frogena, hain zuzen ere. Frogak gaudituz ondoan itzuli egingo dira. Jenobeba herritarren harridura eta lilura sortuz etxeratuko da, Riktrudisi etxera itzultzeko gonbita luzatuko dio debekatu zion hark, baina honek gogo-koago izango du beste etxe bat. Sinbolikoki aurreko bizitzara hil ondoan eta bizitza berrira jaito eta gero Brabanteko Jenobebaren “neke-penak erri guziari erakartzen dioten zoriona” izango du kontagai “emezortzigarren buruak”, Riktrudisek une horietan euskal buruzagirik entzutetsuena zen Portunen kristautzea ekarriko du Añaemendiko fede zaharraren gain garaipena lortuz.

Baina hainbeste antzekotasun ez da heltzen desberdintasuna estaltzera. Argumentu, gai, joskera-mota... berdintsu hauek berbaldiz jazterakoan egindako aukerak amildegia ezartzera heldu dira bi kontakteten artean. Sakoneko egituran eduki dezaketzen antza azaleratze-modu bereiz-

leak irentsi du. Berbaldia banatzeko egitasmoak urruntzen ditu. Oso estrategia desberdinen fruitu dira. Kontalari batek eta besteak zabalduetako planek ez dute kidetasunik. Hitzaren erabileraren baldintzetan dago aldea: nork, zer esateko, non...

Zeinuak eta hauek erabiltzen dituzten subjetuak harremana modu desberdinez eratzen da batean eta bestean. Hots, subjeteuek zeinuez egiten duten erabilerak bere luze-zabalean, subjeteuek erabilitako zeinuen izaerak edo ezaugarriak urruntzen ditu elkarrengandik bi kontaktetak. Ondorioz, zeinu eta hauen interpretatzaileen artean ezarritako harremanak desberdinak izan daitezke eta, zinez, harreman-moduak aldenketaren norabidea hartuko du.

Lehengaien jatorri eta izaerarekin hasten ziren aldeak testu-eraketaren alderdi pragmatikoak areagotu egiten ditu, igorpen-jasotze-moduek itxi arte komunikazio-ekintzaren garapen-prozesu desberdina. Faktore guzti hauek eratzen duten katea hartzaileak eskaini zien babesean dagoen amildegia sortzeko adinakoa da.

Maila pragmatiko honen eratze-moduari buruzko xehetasunak ematerakoan zenbait atal bereziko ditugu. Behar metodologikoez bultzatu gaituzte horretara, argitasun handiagoz adieraztea helburu, baina berez elkarri hertsiki lotuak dauden alderdiak dira, elkar baldintzatuz daudenak, batak bestearengan eragiten bait du: historia berbaldi bihurtzerakoan egindako aukerak dira mintzagai, hitz-oreaz baliatzen diren subjeteuen artean hizkuntz zeinu horiek banatzeko modua eta bakoitzari atxekitzen zaizkion zeinuen nolakotasuna.

Fikzioak irauten duen denbora kontaktetara eramatean egindako auketan lekutzen da alderdi bereizle bat. Zein batak, zein besteak urteak irauten dituzten fabulak testuraten dituzte eta honek laburpenaren erabilera zabala gomendatzen eta eskatzen die. Laburtzerakoan kontaketa iteratibora jotzea azpimarkagarria bada, ez da gutxiago singulatiboa hartzean erakutsitako jokabidea; izan ere, bere eginkizuna ez da egunerokotasuna azaltzea baizik eta zerbait berezia gertatu deneko une hura. Kontaketa singulatiboak dakarren edo eszenak dakarren lehen planoan edo erliebea ez ohizko gertaera, egunerokotasun hertsitik ateratzen dena da: fabularen garapenean aurreratzea zilegiztatzen duen pasarte, une hunkigarri, estu edo arriskudunen bat, suspentsea sortzen duena.

Jokabide amankomun honen azpian bada, ordea, jesberdintasun nabarmenik: Jenobeba, errugabe izanik, salatzen duten unetik aurrera bere buruaren gain erortzen diren zorigaitzak ekarri egiten dira kontaktetara, zenbait aldiz ohizkotasun moduan, baina Jenobebaren ahotsa dakarren bakarriketa harekin nahasiz. Gartzelako bizitzak edo mortukoak aurrerapenik ez dakarrenean fabulan edo Jenobebak leku horietakoren batean pasadizo hunkigarriren bat bizi ez duenean, kontaketa iteratiboa

fikzioaren denboran aurreratze handiak egiteko baliabide bihurtzen da. Lekugune horietan igarotzen duen denbora luzea xehe-xehe kontaktetara ekartzean hartzailea “aspertzeko” arriskua somatuko balitz bezala, ohiz-kotasuna adierazten duten aditz-formen erabilera denbora luze hori irensteko bide eraikitzen da eta fabularen garapenari aurrera egitea zilegiztatzeko dion pasarte edo lekugune horietan bizi izandako une hunkigarriren batzuk hautatzen dira, hitz-ore handiagoa emanez, zabaltzeko. Baina, *Auñemendiko Loreako* Riktrudisi ez zaio Jenobebari beste aukera ematen bere zorigaitzak erakusteko.

Auñemendiko Lorean, lehenik eta behin, mataza ehotzen joan da Riktrudis ezkondu aurretik eta ehotze “luze” horrek hitz-orea xahutu du (16). *Santa Jenobebaren Bizitzan*, aldiz, hirugarren kapituluan jadanik “Jenobeba errugabe salatua” izenburua aurkitzen da, zorigaitzen hastapena markatzen duena. Desberdintasuna ez dago lehenak hastapenetako oreka-giroari tarte luzea eskaintzean eta bigarrenak laburra, hastapenetako oreka-giroa oraindik elezaharrean baino, laburragoa baita *Auñemendiko Lorean* (17) baizik eta, bereziki, “errugabe salatua” gaiari eleberri historikoan ematen zaion errekkurentzian. Riktrudisen maitemintzea eta honek sortzen dizkion kontzientzi arazoak, hauei zuzenki lotzen ez zaion istoriotxo baten kontaketa eta batipat salaketen errekkurentzia hitz-orea xahutuz doaz Riktrudis salatu aurretik eta oso tarte txikia gelditzen zaio salaketa ondoren jasaten dituen erasoak berbaldiz jatzeko.

Riktrudis salatzen dutenerako salatuak dituzte bere aita Arnaldo eta gero senar izango duen Adalbaldo. Salatailea eta salaketa zabaltzen duena berdina da, Portun, salatua da aldagaia. Riktrudisen zorigaitzak ez dira hasten ezkondu ondoko salaketarekin, gainontzekoak ere zorigaitz-iturri izango bait ditu (Adalbaldo salatzen dutenean euskaldun eta frankotarren arteko gerraren geriza zabaltzen da eta Arnaldo, Riktrudisen aita, gerrarien buru joango ote deneko bildurra; Arnaldo salatzean aitaren sufrimentuari hertsiki lotuko zaio Riktrudis), baina aurreko eraso hauek zeharkakoak ziren, aldiz, ezkondu ondorengoa zuzena. Zeharkako erasoen hitz-ore xahuketa ez da alferrikakoa, ez da funtzionaltasunik gabea; izan ere, batetik, “errugabe salatua” den bezalako gai hunkigarria, oso modu hunkigarrian ez bada ere, iteratzen doa eta bestetik, Riktrudisi eginiko salaketa prestatzen, salaketa honen larritasuna neurtzeko oina-

(16) Hogeita bat kapitulutan banaturik dagoen eleberriaren hamabostgarren kapituluan dator Riktrudisen ezkontza. Kapituluaren bi herenak ez-ezik hitz-ore osoaren ia bi herenak xahutu dira ordurako, ehun eta berrogeita zortzi orrialdeetatik ehun eta sei. Ik. ARANO, ROSA MARI (Ed.), *Txomin Agirre: Auñemendiko Lorea*, Sutondoan Saila, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1986. Aurrerantzean jasoko diren testu-aipamenetarako argitalpen hau erabiliko da.

(17) Kontaketa “in medias res” hasten da eta lehen kapituluan bertan Riktrudisen esku gelditzen da hastapenetako egoeraren berri ematea, desoreka sortu duen gertaera adieraztea.

riak jartzen; salaketaren erraldoitasuna azpimarkatzeko bitarteko dira. Iteratzen den gaia oso da hunkigarria, baina Agirrek antzera kontatuko ditu salaketa guztiak eta kontatze-modu horretan ez du lortuko bat bera ere modu zirrargarrian kontatzerik. Gertaera hau eragiten duen faktorea beti berdina da: sufrimentuak ez dio sortzen narratibitaterik eta narrazio-gai bihurtzen zaionean hartzen duen kontaketa-moduak eragotzi egiten dio pertsonaiek bizi dituzten sentimenduak azaleratzea.

Riktrudisi egiten zaion salaketarekin batera datorkion gurutz-bideari eskaintzen zaion kontaketa-tartea askoz laburragoa da. Baina ez hori bakarrik. Salaketaren ondorengo eraso bi mailatan bereizten da Jenobebarenetik: ezarritako gurutz-bidearen desberdintasunean eta berau berbaldi bihurtzeko moduan.

Ezarritako gurutz-bidea bietan da latza eta hunkigarria, baina bere garapenean bada alderik: ezbeharrak bizitzeko eszenario desberdinei, ezbehar hauen dosifikazio eta testuratzeko-modu desberdina gehitzen zaizkie.

Riktrudisek ezkontza-etxea bera du frogan bizileku, Jenobebak gartzela eta mortua, bizileku erakaitzak eta nekagarriak igaroko ditu, sufrimendu moralari oinaze fisikoa batzen dion ibilbidea eratuz. Riktrudisena sufrimendu morala da, Jenobebak beste bat eransten dio honi: behar primarioak asetzeko eragozpenak ditu, jakia, jantzia eta aterpea arazo bihurtu zaizkio eta etengabeko gatazkan bizi da behar elemental hauei erantzun ahal izateko. Ezaugarri honek beronek bihotza ukitzeko aproposago bihurtzen du.

“Luzea” da Jenobebaren ibilbidea eta, gainera, ibilbide horretan estualdi-lasaialdien joko dosifikazio lortu batez bideratzen da. Frogan gogortasuna gehituz doa, goranzko aurreratzea markatuz: gartzela —semea jaiotzen da bertan— heriotz epaia —hiltzeko aginduekin daramate. Goranzko norabidea daraman bide honi distentsio-une batek jarraituko dio —heriotz zigorraren barkamenak— tentsioari berriro heldu aurretik —ez dauka mortuan bizirik irauterik— eta, azkenik, distentsiora igarotzeko basahuntz laguntzailearen agerrerarekin. Mortuko bizitza tristeari mortuko kontsueloak darraizkio, gaixotu eta gaitzean aurrerantza eginaz heriotzerako prestatuko da eta une larri honetan berriro distentsioa, distentsiorik handiena, harrigarriena, zoragarriena: Sijifredok Jenobeba aurkitzen eta ezagutzen du. Ez dago horrelako jokorik Riktrudisek bizi dituen frogan bidean: goranzko progresioa besterik ez dago: gerra oihartzunak —gerra—agurra— senarra hiltzen dute.

Auñemendiko Lorea eleberria bere osotasunean begiratzuz tentsio-distentsioen joko aberatsagoa soma daiteke, baina joko hau eramateko modu motelak ez du bata bestearen ondoan erpinak dituen diagrama eratzeko indarrik. Fabula osoaren argitan klimax-antiklimax joko zabalagoa da: Adalbaldori egindako salaketa dela eta euskaldungoak gerrarako

arrazoirik dagoen eztabaidatuko du. Ezezkoak dakarren lasaitasun-giroari Arnoldoren aurkako salaketak sortzen duen tentsioak jarraitzen dio...

Hala ere, arrisku-uneetan historiak hartuko duen norabidea aurrez iragartzeko adina zantzu emateak, suspentsea pedagogiari menperatzeak, jakin-nahia itotzen du. Jokabide zuzena zein den eta nork hartuko duen aurrez jakiteak ez dio tarterik uzten ez-ustekoari. Pertsonaiak urduriegion daitezke, baina urduritasun hau ez zaio helerazten hartzaileari, pertsonaiaren larrialdia zabaltzen ez delako kontaketa edo eta zabaltzerajotzen bada, luze ematen dituen beste hamaika berriren artean presentzia galtzen duelako, lehen mailako izateari utziz. Modu batera ala bestera kezka-iturria agortzea lortzen da. Honela, Portunek Adalbaldo salatzean sortzen duen tentsioaren harian, frankotarren aurkako gerrari ekingo ote zaion auzi, ekintza honek eragiten duen kezka eta urduritasuna zabaltzera jotzen da kontaketa, Riktrudis eta bere ama Andre Luziaren arteko elkarrizketa eta Ozinbeltzeko batzarrari eskaintzen zaizkion eszenetan. Baina ama-alaben arteko solasean, zenbait berriri eskaintzen zaion hitz-orearen barnean, kezka azalpenak indarra galtzen du, urduritasunaren adierazpena ez da bihurtzen hizpide obsesibo. Ama-alabak arduratan utzi eta Ozinbeltzeko batzarrera eszenarioa aldatzen duenerako ematen dituen zantzuak kezka-iturria agortzeko adinakoak dira: gerrarik baldin bada, auzia bide onetik ez datorrelako, Arnoldo ez da joango euskaldunen buru. Arnoldo gerrara joatea zen, hain zuzen ere, ama-alabengan artegatasuna eragiten zuen faktorea eta, zinez, tentsio-gune honi ez zaio eusten luzaroan; aurretiaz iragartzen da Arnoldok hartuko duen jokabidea. Tentsioa, nekea, artegatasuna, urduritasuna, kezka... dagoela esatearekin aski du *Auñemendiko Loreako* kontalariak, ez du jotzen erakustera. Penak eta nekeak ez dute kontagairik sortzen eta, ondorioz, hunkigarritasuna igortzeko ahalmena galtzen dute. Azken batez, froga-bideak, zorigaitzak *Brabanteko Jenobebaren Bizitzan* kontajarioa bultzatzen du, ez horrela *Auñemendiko Lorean*.

Auñemendiko Loreak errugabe salatua gaia errepikatuz eta guzti ez du ezabatzen protagonistaren sufrimentuan dagoen progresioa. Zorigaitzen hazkundera bat datoz bi salaketak baina, batean mina kontagai bihurtzen den bitartean, bestean ia ausente dago narrazioan, historian egon badago ere, zekenkeriaz jokaten da berbaldiratzerakoan. Dosifikazioa falta da historia hitz-orez jazerakoan.

Zorigaitzean erori ondoren Jenobebak egiten duen ibilbidea, Riktrudisena ez bezala, testura darama kontalariak. Riktrudis Ostrabenton sufritzen utzi eta kontalariak Amandoren artekaritza-lanak jarraituko ditu. Riktrudisek min duela esaten du, minaren oinarriak adierazi, justifikatu, eta prest dago nolako bizitza zeraman Erbesten azaltzeko. Zabalpen handiagorik gabe, senarraren agurra dator, iradokitzen den moduan, azken agurra izango dena, hain zuzen ere. Berrito laga Riktrudis atsekabeen eta

kontalariak honen senar Adalbaldoren urratsak jarraituko ditu. Aurrez iragarritako heriotza Adalbaldoren gain etorri beharra aski arrazoi izan daiteke horrelako jokabidea hartzeko, baina Adalbaldo hil duteneko albisteak jasotzen ere ez du eszenaratzen Riktrudis. Tristura handiak bere arima-egoera harrapatu zuela. Besterik ez. Froga-bidean unerik dramatikoenak ez du eszena bidezko tratamendurik jasotzen, aldiz, froga-bidearen amaiera markatzen duen mementuak bai, froga-bidearen bukaeran erdiesten duen garaipenak, Portunen kristautzeak, bai. Izan ere, Agirreren helburua ez da Riktrudisen penak eta nekeak kontatzea, honek dakarren garaipena baizik: sinekdokearen bidez adierazita kristautasunaren nagusitzea fede zaharraren gain.

Besterik da *Santa Jenobebaren Bizitza* kontatzen duen kontalariaren jarrera. Kontalariak ez du begirik apartatzen Jenobebarengandik. Urruti-ragotik (laburpenetan) edo hurbilagotik (eszenetan) Jenobeba egiten doan bidea jarraitzen du. Behin bakarrik uzten du, bertan Sijifredo kondearen penak azaltzeko da.

Bietan kontaketa singulatiboa eta iteratiboa konbinatuz bada ere, batean atsekabeak kontagai bihurtzen dira, bestean ez. Zinez, ez batean, ez bestean dator egunerokotasun soila, baina aldea penak eta nekeak hitz-orez jaztean ala bilutsik uztean dago. Berbaldi-banaketan ematen den urrunketak, testuaren bestaldean, sentimendu-sorketan eragiten du. Sufrimentua hartzaileari helerazteak ala egon daudela bakarrik esateak ezartzen du desberdintasuna. Gerrak eta senarra hiltzeak bazuten bere baitan aski indar hunkigarri bihurtzeko, baina ez dira testura eraman, ausente daude, fabulak gertaera horiek jazotzen ari direla eta jazo direla dio, erakutsi gabe. Kontalariak abandonatu egiten du protagonista *Auñemendiko Lorean*, ez horrela *Santa Jenobebaren Bizitzan*.

Arestian genionez *Auñemendiko Loreak* ez du erakusten Riktrudisen atsekaberik, ezta besterenik ere. Berbaldia beste zeregin batzutura bideratu da, zeregin horien artean giza-jokabideei buruzko gogoetak bere tarteak du. Elezaharrean ez, baina digresioak daude *Auñemendiko Lorean*. Hona hemen testu-eraketari dagokion beste alderdi bereizle bat.

Bi historiak kontalari orojakileak kontatzen ditu, guztia dakienak eta honek damaion eskubideaz baliatuz kontatzen dituen gertaerak komentatu ere egiten ditu. Jenobebarena ez bezala, komentarioz eta digresioz horniturik dator Riktrudisen historia (18). Jenobebaren historia kontatzen ari den kontalariak alor honetan hartzen duen lizentziarik handiena zorion edo zorigaitz-egoera bat indartzeko egin dezakeen eranskinean dago, kontaketa komentatzera heldu gabe. Fikzioan gertaturiko zerbaiti buruz bere aburua azaltzera ez da iristen, are gutxiago, kontaketa uztera modu orokor batez, modu diskurtsibo batez giza-jokabideei buruz aritzeko.

(18) Ik. adibide gisa *Auñemendiko Loreako* 44-45., 88., 90., 151. orr.

Auñemendiko Loreako digresioek, batetik, hitz-orea lapurtzen dute, bestetik, kontaketa eten eta moteltzen dute eta, azkenik, fabula bera aitzaki bihurtzera daramate, tesi batzuen ejenplifikazio izatearen papera betetzera. Historiaren kontaketa elipsira eramanaz, lehen planoan ematen zaie eta, azkenik, maila orokorrean adierazitako filosofiaren konkrezio eta anplifikazio-leku moduan eraikitzen da berbaldi narratiboa. Mundu-ikuskeraren edo filosofia baten azalpena ez da egiten kontaketa soila dela bide, kontaketa berbaldi diskurtsiboz adierazitako filosofiaren erakusle bihurtzen da, zorigaitzen testuratzeari lekua harrapatuz eta kontaketari malgutasuna eragotziz. Honen aurrean, *Santa Jenobebaren Bizitzan* historia bat kontatzea helburua da bere baitan.

Kontalari orojakile hau irakurle inplizitu bati zuzentzen zaio, berak erabilitako zeinuen hartzaile inplizituari. Bada maila honetan ere alderik bi kontaketen artean. *Auñemendiko Loreako* kontalariaren bidelagun esplizitua da irakurle inplizitua. Kontalariak berarekin batera bidea egin dezala nahi du, sarbidea eman eta behin eta berriz berari zuzentzen zaio. Lehen lerroan bertan hartzaile honen onginahia irabazten ahalegintzen da (19), aurrerantzean eskutik eramateko. Adiskidetasun erretorikoa eskainiz berarekin bat etortzera gonbidatzen du, bien artean eginaz doazen bidea denaren ilusioa sortu eta gertaeretz ematen dion interpretazioa ontzat jo dezan gura du. Etengabe deituz, gogoan duela adieraziz, limurtzea bilatzen du (20). Erretorika klasikoaren aginduak jarraikiz konplize egitea eta berak nahi duen irakurketa ezartzea ageriko helburu du. Jenobebaren historia kontatzen duen kontalaria, aldiz, inoiz ez zaio zuzentzen esplizituki irakurleari, agian, inor limurtu beharrik ez duelako, historia bat dastatzeak sortzen duen atsegina aski izan daitekeelako hartzailea erakartzeko. Ez du horrelako beharrik somatzen *Santa Jenobebaren Bizitza* kontatzen duenak, ez du ezertaz konbentzitu beharrik, ez historiaren egiaz, ez berau ulertzeko moduz. Eta azkenean sortzen doan irakurle inplizituaren irudia ere desberdina da, bata limurtzeko eskutik eramatea onartzen duena, bestea, hainbeste dei jasotzen ez badu ere, eta itxura batean aparteko duintasunez tratatzen ez badute ere, historiak sortzen dion lilura aski duena irakurtzeko.

Hizkuntz zeinuak banatzerakoan hartutako jokabide desberdinetan ezarri da bi kontaketen arteko alderik nabarmenena. Hitz-orea kontaketa-moduei atxekitzerakoan estilo zuzenari ezarritako eginkizunak markatzen du beste alderdi bereizle bat.

Zinez, estilo zuzenaren erabilerara ez jotzea behintzat ezin lepora dakioko *Auñemendiko Lorearen* egileari, ezta *Santa Jenobebaren Bizitzare-*

(19) "Gertaera zarren albistarik euki nai badozu, neure irakurle euskaldun biotzekoa (...) zatoz neugaz batera Franziaruntz" (*Auñemendiko Lorea*, 25. or.).

(20) Ik. *Auñemendiko Lorea*, 68., 88., 95., 105., 133. orr.

nari ere. Agirrek ez du oparotasun handiegirik erakutsi zentzu hertsian kontakteta dena adierazpide erakitzerakoan; berbaldiaren osaketa nagusia bakarrizketa-elkarrizketei zor zaie. Jenobebaren bakarrizketak ere leku zabala hartzera helduko dira. Bi kontaketetan zuzenean transkribaturiko ahotsak presentzia nabarmena du. Halaber, estilo zuzenaren erabilera gomendatzen duen gertaera-moduak ere lotzen ditu: une larria, arrisku-unea. Ahots zuzenak arrisku-une hauek zabaldu eta hedatu egingo ditu. Baina berdintasun honen azpian desberdintasun nabarmen bat eraikitzen da: ahots zuzenak Jenobebaren neke, pena eta, maila askoz apalagoan, poz eta kotsueloak dakartza, Riktrudisenak, berriz, erabat difuminatuta gelditzen dira.

Aurrerago esaten zenez, kontakteta-estrategiak urruntzen ditu; hitz-oreaz baliatzen diren subjetei bitarteko honen erabileran ezartzen zaizkien arauak ez dira berdinak. Gorago aipatzen zen berbaldi diskurtsiboak tartea kentzen dio lekugune narratiboari, mintzagai den estilo zuzenak ere, laburpenak baino toki handiagoa eskatzen du. Elkarren kide dira estilo zuzenak dakarren pertsonaiaren ahotsa sarritan testuratzean, ez horrela ahots horri ipintzen zaion eginkizunean. Jenobebari bere zorigaitzak azal ditzan eskaintzen zaio, Riktrudisek oso noizbehinka bereganatuko du aukera hori.

Auñemendiko Lorearen kontalariarentzat elkarrizketa, sarri askotan, zenbait jakintza-alor lantzeko toki da: historia, kristau-doktrina, kristau-morala... Estilo zuzenak eragiten duen hitz-ore mailako zabalpena ez da hainbeste fabularen aurreratzean sortzen doazen arrisku-uneetan arreta berezia jartzeko nola eginkizun didaktikotarako. Ahots zuzena diskurtsi-bitatera irekirik dauden elkarrizketetan datorrenean, pertsonaiaren ihardun luzeak kontatze-modu honi darion bizitasun eta funtzioaz desjabetzen du, artifizial bihurtuz eta beste zeregin batzutura lerratuz: jokabideak justifikatu, lekzioak eman (21)... Estilo zuzena gisa honetako lanbideei lotuz, pertsonaien sentimentuen adierazpenari tartea kentzeaz gain, adierazpen hori moteltzea lortzen da. Ez da honela jokatzeko Jenobebarekin, ahots zuzena eskaintzen zaionean bere sentimentuen azalpena hedatzeko da, bizi duen arrisku-unearen zabalpen hutsa, bere negar eta itxaropenak erakusteko bidea.

Hizkuntz zeinuen banaketan, subjeto bakoitzari bere adierazpenetarako eskaintzen zaion zeinu-multzoan eta multzo hori bereganatzen doan funtzioan ez-ezik, zeinu horiek hizkuntzaren sisteman hartzen duten kokagunean ere badago alderik. *Auñemendiko Lorea* eta *Santa Jenobebaren Bizitza* elkarrengandik bereizten dituen beste alderdi baten aurrean gaude.

(21) Ikusi besterik ez dago lehen kapituluko ama-alaben arteko elkarrizketan, edo botzgarreneko Arnoldo eta Adalbalderen artekoan, edo hamalagarreneko Amando eta Riktrudisen artekoan... zein erraz lerratzen den pertsonaiaren ahotsa lekzioak ematera.

Mintzaira eskuragarri emanak datoz bi kontaktak, euskaldun orok aparteko ikasketarik gabe ulertzeko eran, baina lexiko-mailako aukeren jatorria ez da berbera. Agirrek Larramendiren hiztegiaren erabilerari ez zion muzin egin, aitzitik, gogo onez hartu zuen. Aita Lino Akesolok Arruek liburu hau baino lehenago argitaratutako batean irakurleari egiten zion aitormena abiapuntu hartuta —“Euskeraren aldetik ipiñi nezakean... itz euskeratuagokin eta gizon argituak zerbait obeto irudi zegikien eran”— gizon “argitu” horien azpian “orduko euskera ‘kultoa’ egin nai zutenak” ikusten ditu “euskeraz idaztekotan, Larramendi aitaren Iztegiara jo bear zutenak”. Eta aurreraxeago dioenez: “Eskerrak eman bear dizkiogu gure Arrueri bide orretara okertu ez zelako. Brabanteko Jenobebaren bitizta onetan itz bat du argi ta garbi Larramendiren labetik ateratako: *Erabezte edo kopia*. Eta bearbada, *Ezegoki* eta Gaitz egoki, eta *Eruendu*. Besterik ez” (22).

Agirrek, *Auñemendiko Lorean* bederen, Larramendi Aitaren hiztegiara jo zuen, baina euskara “kulto” hori ez zuen nahi izan “kultoen” dastagai izatea soil-soilik. Larramendiren hiztegia herritartzea helburu edo lantze-maila modu baten barnean gordeaz “gehiengoengana” ere hurbiltzea jomuga, hiztegiaren erabileran, hizperria edo ustez hartzaileak ulertzeko eragozpenak izango zituen hitz hura, oin-oharretan emandako erdal itzulpenaren bidez argitu zuen.

Iruditegia topikoa da, konparazioaren erabilera nagusitzen zaio metaforarenari; mintzaira eskuragarria da bi kontaktetan, baina testu-aurrean nabarmentzen ziren aldeak jarraipena aurkitzen dute testu-eraketan, erabilitako mintzaira bera harrapatzeraino eta, azkenean, igorpen-jasotze-moduetara ez-ezik hartzailegoak hartutako jarrerara helduko dira desberdintasunak. Esalditik esaldiaz harantza kokatzen den egiturara eramanda kodetze-mailako aldentzea eta hartzailearen deskodeketan eragin du. *Auñemendiko Lorean* egindako lexiko-mailako aukerek, *Santa Jenobebaren Bizitzan* ez bezala, testutik oin-oharrera eta hemendik testura doan begi-mugimendua eskatzen dute eta, honenbestez, ariketa horri muzin egin gabe, joko-erregela hori onartuz irakurtzeko prest dagoen irakurleari zuzentzen zaio, irakurketa isilaren bidez jasoko duen hatzaileari, hain zuzen ere.

Azkenik, igorpen eta jasotze-moduari lotuz, lehen-lehenik esan, argia ikusteko erabili zituzten bitartekoetan hasten direla bi kontakteten arteko aldeak. *Auñemendiko Lorea* lehiaketa literario baten irabazle gisa atalka-atalka argitaratu zen Euskalzale aldizkarian (23), *Santa Jenobebaren Bizitza* liburu gisa kaleratuko da hasiera-hasieratik.

(22) Egindako aipamen multzo honetarako, ik. AKESOLO, LINO (Ed.), *Gregorio Arrue: Santa Jenobebaren Bizitza*, 24-25. orr.

(23) *Euskalzale*, II, 1898.

Eleberri herritarraren sinonimo moduan erabili izanda folletoa, argitalpen-modu bat genero edo testu-tipo batekin identifikatuz. Izan ere, aurreko mendean behintzat, argitalpen-modu hau jarraikiz argitaratu ziren kontaketak herritarrak ziren, ez osagai harrigarri edo miresgarri moldatu zirelako —beste lehengai batzutaz hornitzen bait dira— baina bai beste zenbait ezaugarri gizarte-geruza zabalaren gogoko irakurgai bihurtu zituelako. *Auñemendiko Lorea* argitalpen-modu honen baldintzen barnean plazaratzen bada ere, genero horren zenbait eskakizunetatik urrundu egiten da (suspentsea pedagogiari menperatzean, digresioetan, elkarrizketetara eramaten diren berrietan...).

Kultura-gai desberdinak jorratzen zituen aldizkari batean argitaratu zen eta maila batean ezagunak ziren herri desberdinetako euskalzaleek eratzen zuten sarea zuen harpidetza eta banaketa-sare. Euskalzale militanteen gain eraikia bereziki, eta ez hainbeste aldizkaria irakurtzeko zaletasun eta irrikian, ez zuen lortu Resurreccion M.^a Azkuek amestutako zabalkunde handi eta oparoa. Behin liburu gisa argitaratu ondoan liburu-denda izango du salmenta-leku.

Santa Jenobebaren Bizitza, berriz, beste sare batek banatzen du. Dirudenez bertso-saltzaileen sarea du banaketa-modu (24). Carmelo Echegarayk literatura landua egiteko deian luma zuela, literatura landu horrek hartu beharko zukeen norabidea mintzagai, eraso zituen bertso-paperekin batera zegoen salgai. Jakina, Echegarayk ez zuen gaitzetsi *Santa Jenobebaren Bizitza* (25), ezta bertso-paper guztiak ere, nahiz eta bertso erraz edo prosaiko mezprezatu zuen. Echegarayk gertaera labain edo lizun samarrak kontatzeaz gainera “con crudeza que hoy llamáramos naturalista” egiten duten haiek arbuatzen ditu bereziki.

Santa Jenobebaren Bizitza, herri-kontsumorako sortutako literaturarekin batera saltzen da, salmentarik handiena izan zuen harekin batera,

(24) Antonio Zabalaren usteak alderdi honetara jotzen du. Zubizarretak Brabanteko Jenobebaren gainean egindako bertsoak mintzagai dituela honela dio:

“Onela esaten da 27^{garren} bertsoan:

pekatariak, ikasitzera
orain egin alegiña,
liburu oiek kostatzen dira
errial bi ta erdiña.

Liburu oien berri emana degu: Schmid'ek alemanez idatzi ta Arrue'k euskeratu zuan Santa Jenobebaren bizitza.

(...)

Bañan sal-neurria ere esaten du bertso orrek: errial bi ta erdiña. Beste aldetik, berriz, Zubizarreta ori bertso-paper saltzen ibiltzen ziran oietakoa omen zan. Aldi artan, bearbada, Arrue'ren liburua izango zuan salgai, ta orduan bertso auek jarriko zituan, kantuan ari zalarik liburua ere errexago salduko zualakoan-edo.”

ZAVALA, ANTONIO (Ed.), *Zapirain anaia. Juan Krutz (1867-1934). Joxe (1873-1957)*, Auspoa Liburutegia, 123-124-125, Tolosa, 1975, 75-76. orr.

papera euskarri izanik ere, kantuaren bidez dastatu eta burua gordailu izan zuen harekin batera. Arrueren itzulpenak ere bertso-paper horien bidea jarraitu zuen: testua zuen euskarri, bertsoak kanta bezala, ahotsa izan zuen zabalkunde, ez beti irakurketa isila, eta, hainbat bider behintzat, memoria gordailu (26).

Ez zen hori izan *Auñemendiko Lorearen* banaketa-bidea, ez zabalkunde-modua, ezta memoria ere bere gordelekua. Agirreren *Auñemendiko Lorea* ez zen idatzi ahots goraz aldarrikatzeko, ezta entzun ondoren memorian gordetzeko ere eta ez zuen funtzionatu sare honen barnean. Kultur aldizkari batean ikusten du lehenbizikoz argia, entretenimenduari eskainitako atalak baditu ere, irakurlegoaren ezaguera-maila igotzea helburutzat duen aldizkari batean. Pasarte filosofiko-doktrinal ez hornitua dator, fabularen garapenari datu historiko, edo ustez historikoak direnak gehitzen dizkio, oin-oharretan argibide lexikoak eta historikoak ematen ditu... Elementu guzti hauen bateratzeak sortutako produktua ez zen egokiena ahots goraz aldarrikatzeko, ezta memorian gordetzeko ere.

Santa Jenobebaren Bizitza hartzailego zabal eta handi batengana heldu zen (27), ez horrela *Auñemendiko Lorea*. Agirreren eleberritari hartzailegoak eskaini zion babes eskasa han zebiltzan pertsonaia arrotzen ekin-tzek gure baserritarren egitekoekin antzik ez izateari leporatu zion Aita Lhandek (28). Baina ez ote dira Adalbaldo, Txilperiko, Txildeberto... horiek Sijifredo, Wolfio edo Drako bezain arrotzak? Ez ote dira euskal baserritarrentzat horietako batzuen ekintzak besteenak bezain arrotzak? Ez ote dago gakoa beste nonbait? *Santa Jenobebaren Bizitzari* egin zitzaion abegi onak zera ematen du aditzera: badagoela publiko bat historiak dastatzea gogoko duena eta prest dagoena ahoz-ahozko historien garapen-baldintza hertsiez harantza jasotzeko, alegia, hauen garapen baldintzetan—beste batzuekin batera entzun, ahots goraz talde-mailan, eta ez bakarka isilean— aldaeraren bat eranstea onartzen duena, historiaren euskarria testua izatea, hain zuzen ere.

Errealitate soziologikoan bazegoen historiak gogoko zituen publikoa, *Santa Jenobebaren Bizitzak* aurkitu zuen, *Auñemendiko Loreak*, berriz, ez. Agirreren eleberriarekin desegokitze bat ematen da egile eta publikoaren

(25) "Correcta" adjetiboarekin kalifikatzen du idazlana. Ik. ECHEGARAY, CARMELO, "Bibliografía euscara. Ensayo de un catálogo de obras bascongadas" in *Euskal-Eria*, XV, 1886, 182. or.

(26) Juan Kruz Zapirainengana heldu zen modua lekuko, baita honek erabili zuen gordailu ere.

(27) "hasta los más apartados caseríos de las montañas euskaras" Echegarayk dioenez. Ik. ECHEGARAY, CARMELO, "Bibliografía euscara. Ensayo de un catálogo de obras bascongadas", 182. or.

(28) Ik. LHANDE, PIARRES, "Agiré irakufgaikiña" in *Itzaldiak*, Martin eta Mena'ren etxean, Donostia'n, 1923, 107. or.

artean, hau da, idazlanak eskaintzen duenaren eta sortzen deneko gizartearen konbentzioen artean. Eleberriak proposatzen eta eskaintzen duena zera da: letren mundutik hartutako lehengai batzuk abiapuntu, itxura batean herri-kontsumoa esna zezaketen elementuen konbinazioa, hunkigarriak, zirrargarriak, ez-ustekoak, eguneroko bizitzakoak ez zirenak, handikien negar, poz eta saminak, abentura, mundu eskuragaitza, pertsonaia arruntari gertatzen ez zaizkion jazoerak, aukeratuentzat gordeta daudenak (maitasun-triangela, aberriak edo fedeak oztopatzen duen ezkontza, errugabeen salaketa, gerra, heriotza, komentua...), baina elementu hauek ez ziren testuratu hunkigarri bihurtzeko eran edo zirrara eragiteko moduan, gogoetez, datu historikoz eta abarrez itoak baizik, konta-jarioa moteltzen duten akzidentez beteta, hainbestearino non historiari, berez lukeen autonomia ebatsiz, morrontza ezartzen zaion gogoeten ejenplifikazio eta anplifikazio-leku izatera eramatean. Letradunengandik jasotako lehengaietan du jatorria eta, historia eratzerakoan ere, zor horri eutsi egin zion. Hamaika modu zituen eusteko —historia landua eta malgutasuna kontaktan ez dira ezkontezinak, aitzitik, modu landu eta arinez oso errealitate serioak eman dira aditzera— eta diskurtsibitateira irekitako berbaldia hautatu zuen historia hunkigarri eta zirrargarriaren galeratan.

Egon bazegoen euskal publiko bat, ahoz-ahoz hamaika kontaketa entzunda zegoena, umoreak, mundu lazgarriak edo miresgarriak erakartzen zuena. Bazen euskal hartzailego bat elementu hauekin atondutako kontaketak ezagutzen zituena eta gogoz bereganatzeko prest zegoena. *Auñemendiko Lorean* ez zuen “errekonoizitu” bere mundua. Berak eraikitzen zuen irakurle implizituak beste hartzaile bat bilatzen zuen, berria, edo honi zuzentzen bazitzaion hau ez zen identifikatu eta, honenbestez, orduan zegoen ia-ia publiko bakarrari bizkarra eman ziola esan daiteke. Identifikazio-falta horren jatorriak komunikazio-prozesu osoari eragiten dio eta ez faktore bakar bati.

Zaila da, ezinezkoa ez esateagatik, baserrian eta hirian funtzionatuko duen eleberria egitea, burgesiaren dastagai eta herritarrena izango dena aldiberean. Publikoak daude, are gehiago gure mendera hurbiltzen garen neurrian. Euskal publikoa geruza herritarrean lekutzen da bereziki. Honek idatziz igorri zitzaizkion kontaketa ezagunak, “errekonoizitu” zitzazkeen haiek, gogo onez dastatu zituen.

Ahoz-ahozko mundutik erdi-ahozkorako jauzia egin da eta biak elkarrekin bizi dira, bata bestea irentsi gabe. Hartzailego berbera izan arren ez dute elkar oztopatzen. Izan ere, azken batez, muin-muinean komunikazio-ekintza ez da aldatu: eguneroko bizitza arruntari ihes egiten dizkioten gaiak, gai ezagunak, “koloredun pertsonaien” eskutik harildutako mataza hariak eta modu harrigarri, miresgarri, ez-ustekoan askatzen duten arte, prozesu psikologikorik bizi izan gabe, gertaera gertaeraren gainean kontak-jario amaigabeari lotua... ahots goraz giza-taldearen aurrean aldarrikatua

eta ez bakarka eta isilean jaso. Idazkerak ez dakar funtsezko aldaketarik komunikazio-ekintzan. Ez du eraikitzen, esate baterako, gogoeta-prozesu bat. *Auñemendiko Loreak* hautsi egin zuen sistema hau.

Zinez, aurreko mendean prosa idatzia bide kontatu ziren historiak ez ziren heldu bertso-paperek bertsoa bitarteko kontagai hartu zuten gai-ugaritasunera. Kontaketa idatziak murriztu egin zuen bere iharduera-eremua, beti ere birtutearen alorrean murgilduz eta bertso-paperek erakutsi zuen esparru-hedaketara iritsi gabe. Hartzailegoa berdina da, elkarrekin otoitz egiten dutenak, elkarrekin biltzen dira ikasitako bertsoak tabernan edo sagardotegian kantatuz eta, era berean, interesguneak desberdinak badira ere batean eta bestean, elkarrekin entzuten dute *Santa Jenobebaren Bizitza*. Bizitza-modu komunitarioa, testuen kolektibitate-mailako jasotze-moduaz lagundurik doa, ahots goraz aldarrikatuz. Komunitatea une bakoitzean osatzen dutenak berdinak ez izan arren, beti da talde-mailakoa. Etxeko sukaldea, jostundegia, sagardotegia edo taberna... errosarioa esateko, kontaketa irakurtzeko eta bertso-paperek kantatzeko leku dira, biltokiaren ezaugarri eta biltokira batutakoan harreman, egoera, helburu, pertsona-modu eta abarrek biltze-moduari egokienak zaizkion gaiak hautatuko dituelarik. Baina guztiak elementu amankomun batzuen azpian eraikitzen dira: gai ezagunak, entzundakoak direlako (ez du axola auzoan, herrian nahiz inguruan gertaturikoa izan eta pertsonaia erreala identifikatu nahiak sortzen duen irrikia izan euskarri edo pertsonaia heroiko baten eskuragaiztasunaren erakarmenean oinarritu; bien artean dagoen aldea ez da adierazgarria ez bada leku, une, zirkunstantzi, bildutako kolektibitatearen ezaugarri eta abarrek, hots, harrera-baldintzek ezarritako egokitasun handiago ala txikiagoagatik), egunerokotasunetik ateratzen diren gertaerak, talde-mailan jasoak...

Idazketa-irakurketen ekintza banakoa eta bakarkakoa bada, aurreko mendean bederen euskal kontaketa herritarrera hedatu gabe zegoen, bereziki gai ezagunekin eta kolektibitate-mailan jasotakoekin jarraitzen den neurrian. *Auñemendiko Loreak* komunikazio-ekintza honen katean katebegiak hausten zituen. Gakoa ez zegoen idatzia izatean soil-soilik baizik eta zer eta nola idazten zen horietan eta honek zilegiztatutako edo erraztatutako jasotze-moduetan.